

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko urriaren 5a

Egunkaria


Gehigarri honetan




Erronkari • Pirinioetako basoaren besta eginen dute asteburuan basoen sektoreko lana aztertu eta gizarteratzeko
Mikel Martinez de Narvajás • «Etengabeko aldaketa bizi du zirkoak gaur egun»

Aspaldiko

• MIKEL SAIZ



gerra makinak



14
CASTELLANO: TRABUCCO, MÁQUINA PEDRESA
LATÍN: FUNDIBALUS
CAST. ANTIGUO: FUNDIBULO O FUNDIBALO
FRANCOIS: TRÉBUCHET
EPOKA: SIGLO XIII
ESCALA: 1:40

Talibanak telebistan agertzen direnean Erdi Arora bueltatuak garela dirudi. Bizar luze horiek, durbante horiek, begietako partxe horiek... Talibanen armak, baina, ez dira Erdi Arokoak. Zaharrak bai, baina ez horren aspaldikoak. Eta talibanen aurka EEBBek erabiliko dituzten armak are berriagoak dira. Garai batean, ordea, gerra makinak oso bestelakoak ziren. Egurrez eginak ziren, eta mekanika zuten oinarri. Ezberdinak izanagatik ere, ezin ahazten ahal da helburu bera zutela, ahalik eta min handiena eragitea.

• MIKEL SAIZ



Lizarra ●

Urtekari peto-petoa

Irujo Etxea Elkarteak urtearen buruan egindako ekitaldiak biltzen dituen urtekaria kaleratu berri du

IAZKO AZAROAN, NAFARROAKO konkista ardatz izan zuten hitzaldien edukiak jasotzearen urtekari bat egitea otu zitzaion Irujo Etxeko Elkarteak. Ideia burura etorri eta halaxe egin dute. Dagoeneko kalean da aurreneko urtekaria; 4.500 ale kaleratu dituzte, eta denen eskura dago, doan. Urtekariak historia eta kultur gaiei buruzko hausnarketa gune izan nahi du, eta hiru hizkuntzatan idatziak dauden lanak bildu ditu: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez, alegia. «Gure historiaren ikerketaren bidez, topaguneak proposatu nahi ditugu. Topiko zaharrak gaitzesiz eta denetarik iritziak jasoz, gure iragana aurkitu nahi dugu. Historia benetan pizgarria da, eta etorkizunerako irizpide eta gakoak aurkitzeko baliagarria», azaldu zuen Koldo Biñuales elkarteak kide eta urtekariaren arduradunak.

Urtekariak urtearen buruan elkarte honek egiten dituen ekitaldiak biltzen ditu. Biñualesen erranetan, «joan den urtean Nafarroako konkista izan genuen aztergai, eta adituek esandakoa osotasunean bildu ditugu aurrenekozt». Ildo horretan, Tomas Urzainki, Alvaro Adot eta Mikel Soraren hitzak jaso dituzte. Halaber, ekainean elkarrearen saria jaso zuen Jose Maria Jimeno Jurioren omenaldia egin nahi izan diote aurreneko urtekari honetan,

Euskal Herriko historiari eta kulturari buruzko hausnarketa gune izan nahi duen urtekaria aurkeztu berri dute Lizarrako Irujo Etxeko Elkarteak kideek. 40 orrialdetan, hainbat historia adituren testuak bildu dituzte, Nafarroa izenburupean.



Irujo Etxea elkarteak kideak, urtekariaren aurkezpenaren, eta argitalpenaren azala.

● KRISTINA BERASAIN

eta, bertzeak bertze, berari egindako elkarrizketa luzea ageri da.

Elkarteari izena ematen dion Manuel de Irujo zenari ere tarte bat egin diote, bere bizitza aztertuz. Jon Oria Lizarrako idazleak ere idazlan bat plazaratu du urtekarian. Bertan, XVI. mendeko Nafarroa ikertzen du, garaiko gizarte aurrerakoa zela argudiatuz. Juan Mari Satrustegi euskaltzainak ere *Berpizkunde aroko Nafarroa* izenburua duen

lana idatzi du ale honetarako. Satrustegik euskarak eta euskal kulturak garai horretatik aitzina jasan dituen oztopoen berri ematen du. Azkenik, eta Lizarrako historia ere berreskuratzeke xedearekin, Mikel Ramos arkeologoaren eta Javier Camañoaren testuak jaso dituzte; gotorlekuaren eta Donejakue bidearen garrantzi historikoa aztertzen dute, hurrenez hurren.

Irujo Etxea Elkarte Estelle-

rian euskal kultura eta euskararen sustatzeko xedearekin sortu zen. Egun 52 kide daude, eta urtean bi ekitaldi nagusi egiten dituzte: azaroko hitzaldiak eta euskal kultura sustatu duen pertsonari egiten dioten omenaldia. Urtekariaren aurkezpenaren aurreratu zuten, aurtengo hitzaldi sortek Karlistaldiak izango dituzte ardatz.

→ Kristina Berasain

Baztan ●

Mariano Izeta ikerketa beka

BAZTANGO UDALAK EUSKARAZKO ikerketa sustatzeko eta Mariano Izeta jauna omentzeko, haren izena duen ikerketa bekarako deia egin du, ahozko tradizioaren eta etnografiaren munduari lotutako gaiak aztertzeko. Xedea hau da: Baztango euskararen ahozko tradizioaren inguruko oro berreskuratzea eta biltzea, ondare hori sailkatzea eta lana Baztango ikastetxe, kultur elkarte eta, oro har, gizartearen zabaltzeko proposamena egitea.

Ikerketa egiteko eskaerak Baztango Udalean aurkeztu beharko dira, azaroren 16ko ordu biak baino lehen. Ikerketa gauzatzeko laguntzaren zenbatekoa milioi bat pezetakoa izanen da (40.000 libera), hiru epetan ordaintzekoa. Beka irabazten duenak urtebete izanen du lana egiteko.

Hautagaiak bakarka edo taldean aurkeztu ahal dira (gehienez ere, hiru kide taldeko) eta, taldeka eginez gero, taldekide bat lanaren arduraduna izanen da. Taldekide guzkiek EGA agiria edo balio-kidea izan beharko dute. Hautagaiak erdi edo goi mailako unibertsitate tituludunak izan beharko dute —bakarrik aurkeztuz gero, nahitaezkoa da hori, eta taldean aurkeztuz gero, bitik batek eta hirutik bik izan behar dute tituludunak—.

Deialdiaren oinarriak esku-ratzeko edo informazio gehiago jasotzeko, Baztango Udaleko Euskara Zerbitzura jo (Foruen plaza z/g 31700 Elizondo), telefonoz deitu (948-580006/ 948-581007) edo mezu elektronikoa igorri beharko da (euskara@baztan.animsa.es).

→ Asier Azpilikueta

Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



Ikusi, aditu, entzun. Ezagutzeko hiru oinarriak. Baita gehiago egotea, ene ustez hauek aski dira azaldu nahi dudana errateko. Gure bizimodua-mendebalde debalde-gidatzen duten mass mediak sistema betikotu dadin lan egiten dute, gau eta egun, 27 orenez egunean. Beraiek erraten digute zer ezagutu behar dugun, nola, noiz, etab. Errealitatea askotarikoa da, baina zuri-beltzean aurkeztu digute, azpimarratuz nortzuk diren pelikulako gaiztoak, ankerrak eta historiabakoak, eta zeintzuk onak, jatorrak, saiatuak, langileak eta biografiadunak. Beti ez dute huts egiten, ezinezkoa baita kasik ele hau bere osotasunean erabiltzea. Gehienetan bai, zitalki jokatzeko dute, eta pentsamendu bakarra deitzen den corpus grisa gorpuzten dute.

Hunkibideak

Adibidez, egun hauetakoa gertakari bakarra dela medio (ez baita bertze deus gertatu munduan, ezta?) parada ederra izan dut hunkiduzer hausnartzeko. Ezagutzen dugunak hunkitzen gaitu, ezagutzen ez dena ezin da maitatu, ezin hunkitu, beraz. Silogismo simple bezain ezagunak Erdialdeko Amerikara eramanez. Burutik kendu ezinik nabiltenez, eta nola psikologik ordaintzen ez dudan, orri hauetan pausatzea otu zait, zilegia denetz erreparatu gabe, axolagabe, ele batean biltzeko. Sumpul du izena, ibaia omen da —Rio Sumpul—. Duela hogeita urte Guatemalako Armadak —USA zen/da gibebeko boterea (ala El Salvador ote?)— ehunka pertsona akabatu zituen ibai horren ertzean, inguruan, ez dakit zehazki. Zenbat hil ziren ere ez

dakit. Aurpegiak ez ditut gogoan, ez dakit nekazariak ziren, ikasle, zenbat emakume, adin taldeak, zer amesten zuten, amodio kontuak, familia osoak desagertu ote, ez dakit deus. Duela hogeita urte izan da, txol, pentsatuko du irakurle zorrotzak. Duela hamar urte, USAk (Monroe dotrinaz luzatu gabe) Panama berrinbaditu zuen. Ofizialki 100 edo 200 pertsona hil omen zen operazio —hau bai ele neutra!— horren ondorioz. Ahogabeek 4.000 eta 6.000 artean kokatzen dute hildako kopurua. Okerrena ez da hiltzea, batzuetan, hilik ez zaudela frogatzen duten estatistikak baizik.

Orain hunkitu gaituzte, gerra hasiko dute malkoak mazeletatik irristatzen zaizkigularik.

Erronkari ●

Pirinioetako basoaren besta



Pirinioetako basoen gaineko ekitaldiak eginen dituzte egunotan Erronkarin. Irudian, Iratiko basoa eta Irabiako urtegia... ● EGUNKARIA



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Gerraren Usoa

Nik esan nion ditzosozko bakearen usoa Bibliaren irudietatik atera dutela. Azaldu nion nola Noek usoa askatu zuen eta nola bueltatu zen usoa kutxara olibondo baten adaxkarekin, eta Noek seihun eta bat urte zituela esan nion, azken hau istoriotxo pixka bat adornatzeko, eta nola usoa askatu zuen hurrengo aldian usoa ez zela bueltatu, lurra lehorturik zegoen seinale; eta Bexikulasek Larraburu-Eneko terrazan mesfidati begiraten ninduen eta «nik ere antzeko istoriotxo bat ezagutzen dut» esan zidan, «baina nirean gerraren usoa agertzen da, eta ez bakearena, eta ez zen adaxka batekin itzuli, zurizuria, kristo bat eginda baizik».

Eta atsedetik hartu gabe jarraitu zuen. Cher Ami deitzen zen (adiskide maitagarria), eta horrela izan ziren istoriotxo honen gorabeherak: 1918ko udazkenean aliatuek eraso egin zuten Frantziako mendebaldeko frontean. Gerra alemanen kontra zen, noski, oso gerra krudela. No mans land delakoak sei metro eskasetakoa izaten zen askotan. Pentsa: etsaia sei metrotara. Gauzak horrela, estatubatuarrei Argonneko basotik aurrera egitea egokitu zitzairen eta halaxe egin zuten. Handik bi edo hiru egunetara, eta alemanek egindako kontraofensiba baten ondotik, Charles Whittlesey komandanteak agintzen zuen batalioia gudarostearekin kontaktua galdu eta etsaiez inguraturik gelditu zen. Ikusten duzenez, pixka bat Noeren Kutxaren antzera, etsaiez osaturiko itsaso zabal batean isolaturik baitzebiltzan. Kontaktua berreskuratzeko eta agintariei non zeuden zehazteko bost uso bidali zituzten. Ez ezazu barrerik egin! Garai halek zaldi, zepelin eta usoenak ziren. Harira: laugarren egunerako gizonen erdiak hilik zeuden eta gainontzeko gehienak zauriturik. Gauzak okertzeko, aliatuek bombardaketa bortitz batekin naufragoak lagundu nahi izan zituzten, eta posizioaren erdi-erdian hasi ziren lagunuen bonbak jausten. Orduan bombardaketa eteteko mezu bat idatzi eta bizirik gelditzen zen uso bakarrari lotu zuten. Usoa, noski, Cher Ami zen. Alemaniarrren gainetik igarotzerakoan hanka bat galdu zuen, esternoia hautsi eta begi bat atera zitoten tiroka, baina bombardaketa etetea lortu zuen eta sendatu ondotik heroi bat bezala tratatu zuten hil arte. Gaur egun Smithsonian institutuan ikus daiteke, disekaturik, Washington D.C.ri ●

Erronkari ibarreko Juntak, Pirinioetako bi aldetako baso elkarteekin batera, eta hainbat erakunderen laguntzarekin, Pirinioetako Basoaren lehen Besta antolatu du asteburu honetarako. Pirinioetako basoetan eta basoetatik lan egiten dutenak bildu nahi dituzte besta horretan, baita mendietako bi aldetan egiten den baso gestioaren nondik norakoak gizarteratu ere. Izan ere, bestaren koordinatzaile Miguel Guibertek adierazi duenez, «arras ahaztuta dute sektore hau». «Borondate politikoaren menpe dago sektorea eta hauxe Pirinioetako ibarrek duten arazo handietako bat da; ibarrek hustutzen ari dira honek aitzina egin dezan beharrezko inbertsioa egiten ez delako».

Ekitaldiak hiru egunetan

Basoaren bestako ekitaldiak gaur hasiko dira. Egunean zehar, Iruñeko eta Erronkari ibarreko hainbat ikastetxeko 10 eta 12 ikasleekin hainbat tailer eginen

Hainbat ekitaldi eginen dituzte asteburu osoan basoen sektoreko lana aztertu eta gizarteratzeko

Gaur hasita eta igandea arte haurrentzako tailerrak, erakusketak, mahai inguruak eta almadia jaitsierak izanen dira Erronkarin basoan eta basoko gaiekin lan egiten dutenen lana ezagutzera emateko.

dituzte basoarekin zerikusia duten zenbait lanibde esplikatzen (basozainak, almadieroak, ornitologoak...). Gaurko ekitaldiekin segituz, 19:00etan, Erronkariko juntetxean, mahai inguruak eginen dute Pirinioetako baso langileen etorkizunaz solastatzeko.

Larunbaterako txangoa antolatu dute. Autobus bat Iruñetik Belaguarainoko bidea eginen du, hainbat geldialdi «tekniko» eginez; hala nola, Arbaiungo arroilan, Berruetan, Izaban edota Larran. Arratsaldean sektorean ionteresa sortu duen bigarren mahai inguru bat eginen dute.

Arratsaldeko zazpitan, Izabako museoan, baso gestioaz eta Pirinioetako garapenez mintzatuko dira, besteak beste, Aragoiko lehendakari ohi eta ICONAko zuzendari ohi Santiago Marraco, Europako Mendi Basoaren Behatokiko zuzendari Gian Carlo Zingari, eta Nafarroako Gobernu Ingurumen zuzendari Ignacio Elorrieta. Ertabaidako kontu pisutsuak arintzeko, Danburia taldeak Pirinioetako hainbat kanta joko ditu gauean Izabako elizan.

Azkenik, igandea publiko zabalari eskaini nahi izan diote eta izaera alaiagoa izanen du. Bela-

guako Txokoan (Izabatik Zuberoara doan errepideko 11 kilometroan) hainbat baso elkarte euren lana zein den esplikatuko dute horrterako paratuko dituzten makina bat stand-etan. Eguerdialdera, baso lanen erakusketa praktikoa eginen dute. Herri bazkaria Burgin izanen da 14:30etan. Eta bestarekin bukatzeko, Burgin bertan, 16:30etan, Ezka ibaiatik almadia jaitsiko dira.

Honetaz guziaz landara, aipatzekoa da Izabako museoan zuhaitz eta egur moten erakusketak egonen da.

→ Asier Azpilikueta

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Aralarko bira berritua

Irailako Guaixek aldizkariko zenbakiak Aralarko mendilerroa inguratzen duen 129 kilometroko ibilbideari buruzko erreportaia bildu du bere orrialdeetan, beste hainbat gairen artean. «Sakanako Kirol Batzordeak eta Nafarroa eta Gipuzkoako mendi federazioek Aralar mendia inguratzeko duen ibilbidea markatu dute. Ibilbide handien artean onartua dago Aralarko hau. Hortaz, 129 kilometro luzeetan barna marra gorri eta txuriak zuhaitz eta harrietan markatu dituzte, bidea nondik nora doan jakinarazteko».


«Ekimen honekin egitasmoaren lehengo helburua bete dute, hau da, bidea markatzeaz gain, biraren inguruko informazioa jasotzen duen triptikoa kaleratu baitute. Azken honen 10.000 ale argitara eman dituzte eta interesa duen edonork Sakanako Mankomunitatean, turismo bulegoan edota Mendi Federazioan eskura dezake».

«Egitasmoaren bigarren fasea udaberrian bideratuko dute. Ordurako xenda eta ibilbideen bigarren garbiketa burutuko dute eta margoz egindako sei-

naleei panel berriak gehituko zaizkie, bideen norabidea eta denborak adierazteko».

Guaixek beste hainbat gairen berri jaso du azken zenbakian: Irurtzango Biaizpe telezentroa, Argu-Bidea gazteen elkarteko obrak, Etxarriko zinemako denboraldi berria, Altsasun eginen duten negozio berriak sortzeko ideien jardunaldia, eta abar. Nekazaritzari buruzko atalean, berriz, mendialdeko eztiari buruzko erreportaia argitara eman du Guaixek.


● MIKEL SAIZ



ERASO DORREA

Antzinatasuna: ?
 Makina mota: Hurbiltze makina
 Maketaren tamaina: 30x18x38
 Eskala: 1:40
 Historia: Hainbat solairutako eraso dorre mugikorrek setiatzen ari ziren gotorlekuraino hurbiltzen ziren gerrariak. Gotorlekuaren ondora ailegatu bezain pronto, goiko arranja jaitsi eta harrerien gainetik pasatzen ziren setiatzaileak. Setio luzeetan erabili zen. Alexandro Handiak dorre erasoak erabili zituen.


● MIKEL SAIZ



BALEZTA BIKOITZA

Antzinatasuna: XVI. mendea.
 Makina mota: Tentsio tiroko makina neurobalistikoa.
 Maketaren tamaina: 23x20x17.
 Eskala: 1:17.
 Historia: Baleztek geziak, harriak edo burdin pilotak jaurtitzen zituzten oinezko eta zaldizkoen kontra. Nolabait errateko, uztai handiak ziren. Soka bat tenkatuz botatzen zuen jaurtigaia. Balezten sistema konplikatuz joan zen urteekin. Irudiko *doppia balestra* italiarrak oso sistema bitxia erabiltzen zuen. Soka tentsio puntu zehatz batera ailegaltzen zenean balezta berak jaurtitzen zuen gezia edo burdinazko pilota.


● MIKEL SAIZ



NORMANDIAKAPULTA

Antzinatasuna: XI. mendea.
 Makina mota: Tiro kurbatuko makina neurobalistikoa.
 Maketaren tamaina: 40x20x17.
 Eskala: 1:12.
 Historia: Katapulta batzuek erabiltzen zituzten beso jaurtitzalea bultzatzeko. Besoak, uztaiak. Eta beste mota batekoek sokak eta uztaiak erabiltzen zituzten. Irudiko katapulta normandiarren gisara. Katapultak 100 kilo bitarteko harriak botatzen ziren, 30-50 bat metrotara eta besoaren bidea balaztatzen zuten sokak erabiltzen zituzten. Maketa kit batekoa da, hau da, denda batean erabiltzen zuten.


● MIKEL SAIZ



ARIETEDUN DORTOKA IBILTARIA

Antzinatasuna: ?
 Makina mota: Hurbiltze eta suntsitze makina.
 Maketaren tamaina: 28x10x15.
 Eskala: 1:25.
 Historia: Txabola mugikor honekin gerrariak setiatzen ari ziren gotorlekuraino hurbiltzen ziren. Irudian, makinaren eskeletoa ikusten da. Makinak zurezko edo larruzko teilatua zuen, gotik erortzen ziren harriztar eta gezietatik babesteko. Gotorlekuko ate edo harreria ailegaterakoan, arietea (buru metalikodun zuhaitz enborra) dinbili-danbala mugitu eta suntsitu beharrekoa suntsitzen zuten.

● MIKEL SAIZ



ERRESORTEZKO MAKINA

Antzinatasuna: XIII. mendea (edo zaharragoa).
 Makina mota: Tentsio tiroko makina neurobalistikoa.
 Maketaren tamaina: 23x16x15.
 Eskala: 1:14.
 Historia: Makina zahar honek funtzionamendu erraza du. Zurezko estrabe bat atzerantz tenkatu eta, askatzen zutenean, indar handiz jotzen zuen gezi baten ipurdian. Apuntatzeko sistema ere bazuen. Balezta mota bat da.

Antzinako gerra ttikan

Gerardo Lora iruindarrak Antzinateko eta Erdi Aroko gerra makinaren maketen bilduma osatu du

Garai batean gerra egitea neketsua zen. Atzoko eta gaurko gerrariak desio bera zuten, arerioa akabatzea, baina atzokoei sarraskiak egitea gehiago kostatzen zitzaizkien. Antzinatean eta Erdi Aroan, bolboraren kimika mekanikari gailendu zitzaion arte, gerra makina pisutsuak erabiltzen zituzten gerrariak. Katapultak, balezta, eraso dorreak eta trabukoak. Gerra makina horien hamasei maketa ikusgai dira egunotan Zizur Nagusiko Kultur Etxean.


GERARDO LORA JAUN SARASI, BEREZ, EZ zaizkio gerra kontuak askorik interesatzen. Modelismoa du zaletasun. Duela hiru bat urte Zitudadelan egin zuten erakusketa bat bisitatu eta gerra eszena batekin liluratu zen 53 urteko iruindar hau. Soldadu erromatar batzuk balezta bat jaurtitzeko prestatzen ari ziren diorama horretan. «Oso ttikia zen, baina benetan ederra, oso ongi margotua», erran du Lorak. «Baina pieza ttiki horiek ez ziren mugitzen, eta lagun batekin komentatu nuen interesgarria litzatekeela balezta horren funtzionamenduaren sistema mekanikoaren nondik norakoak ezagutzea. Informazioa bilatu eta pieza hori egin nuen. Eta horrela sortu zen Antzinateko eta Erdi Aroko gerra makinaren bilduma hau».

Bolbora agertu arteko makinak
 Lorak bukatutzat eman du bilduma. «Gerra makinekin ez dut jarraituko», dio. «Ez dut nahi. Bolboraren erabilera nagusitu zen garaian gelditu naiz. Makina hauek ezin zuten bolborarekin lehiatu. Kanoia erabiltzen hasi zirenean, hauek guziak desagertu egin ziren. Eta nik XVI. mendetik aurrerako makinei buruz ez dut deus ere jakin nahi».

Gerra makinaren bildumarekin bukatu eta gero, beste zerbaiten bila dabil Lora. «Beharbada, Nafarroako errotekin hasiko naiz orain».
 Baina ez pentsa gerra makinak egiteari utzi dionik horiekin aspertu delako. Ez. «Kontua da hauek direla dauden makina guziak», esplikatu du: Makina hauen dozenaka aldaera daude, baina oinarritzko piezak hauek dira».
 Zizur Nagusiko erakusketan hamasei pieza daude ikusgai. Maketa handienak ez ditu 50 zentimetro baino gehiago. Hiru makina mota daude: tentsio tiroko makina neurobalistikoa (balezta); tiro kurbatuko makina neurobalistikoa (katapultak eta trabukoak); eta hurbiltze eta suntsitze makinak (eraso dorreak, esku eskailerak, garabiak, dortokak eta arietek).

Informazio eskasa
 Bilduma osatzea asko kostatu omen zaio Lorari, informazio gutxi dagoelako. «Datuak biltzen han-hemenka ibili naiz, egunkarietan, liburuetan, entziklopedietan, armada museoetan. Ahal izan dudan lekutik edan dut. Marrazki batean gauza bat ikusten zen, beste batean beste. Zenbait marrazkitan oso ongi

● MIKEL SAIZ



TORTSIO KATAPULTA

Antzinatasuna: K. A. V. mendea.
 Makina mota: Tiro kurbatuko makina neurobalistikoa.
 Maketaren tamaina: 20x14x16.
 Eskala: 1:17.
 Historia: Makinarik zaharrena. Adituek diote Siracusa hiriko setioan erabili zutela estreinakoz, Sizilian. Asmakari greziarra da, erromatarrek hobetua. Atzealdeko trinketeak bueltak emanez, beso tiratzailea askatuko zuten sokak txirikordatzen ziren. Beharrezko tentsioa lortzen zutenean, trinketea askatu eta sokak beso tiratzailea 90 gradu mugiarazten zuten. Maketa hau Gerardo Lorak egin duen azkena da.



Gerardo Lora


«Antzinateko eta Erdi Aroko gerra makinaren maketen bilduma osatu du. Erakusketak dauden makina guziak. Maketa dozenaka aldaera dauden oinarritzko piezak dira»

ikusten zen eta beste batzuetan ez, eta asmatu beharra izan du». Lortzen zuen informazioarekin zirriborroak egiten zituen, eta hortik ateratzen ziren maketak. Irudimen handia behar izan du batzuetan.
 Erabilitako materiala edozein maketa egiteko materiala da: zura, mota guzietako metalak (burdina, kobrea), soka, kola, iltzeak... Maketa bakoitzarekin eman duen denbora ez du argi Lorak. Izan ere, zenbait maketatzen behin eta berriz errepikatu behar izan du piezaren bat, makinak modu egokian funtzionatu dezan. Xehetasun ttikiak ere egin ditu Lorak. Horren bidez ikusten ahal da zeinen zaila egiten zitzaion gerrariak erakusketako zenbait makina erabiltzea.

Mekanikaren zalea

Aipatzekoa da Loraren gerra makina guzietatik, ttikiak izanagatik ere, behar bezala funtzionatzen dutela. Bere garaian bezala-

● MIKEL SAIZ



MANGONNEAU MAKINA

Antzinatasuna: XV. mendea.
 Makina mota: Tiro kurbatuko makina neurobalistikoa.
 Maketaren tamaina: 40x50x42.
 Eskala: 1:40.
 Historia: Frantziako Orleansko Saint Paul dorrean makina honen arrastoak aurkitu ziren. Kargatzeko sistema oso konplikatua du, polea eta errota bidezkoa. Soldaduek bi aldeetan dauden danborretan sartu eta barruan ibiliz jaurtigaia botatzeko tentsio indarra lortzen zuten.


tsu, harriak eta geziak jaurtitzen dituzte. Harri eta gezi ttikiak, noski. Are gehiago, maketarako bat Leonardo Da Vinciren estudio batetik hartua dago. Eraso guri bat da. Zaldiek gurditik tiratzen zuten, eta hau mugitzen zen heinean goian zuen helize batek lau mazo mugitzen zituen jira biraka. Teorian, behintzat. Lorak ez daki asmakari hau inoiz egin ote zuten, baina gustatu zitzaionez, horren maketa egin zuen.

Arestian erran bezala, Gerardo Lorari ez zaizkio gerra kontuak interesatzen. Bere lanetan ez dago mezu ezkuturik. «Gustatzen zaidalako egin dut hau. Filmetan ikusten diren katapultek-eta nola funtzionatzen zuten jakin nahi nuen. Mekanikak erakarri nau, ez gerra kontuak». Zizur Nagusiko erakusketa igandean itxiko dute, baina Lora hainbat eskaera aztertzen ari da erakusketa beste nonbaitera eramateko. Erakusketa bisitatzen duenak bertan Gerardo Lora topatzen badu, lasai asko galdetzen ahal dio nola funtzionatzen duen makina bakoitzak.

→ Asier Azpilikueta

Antzinateko eta Erdi Aroko gerra makinak
 Zizur Nagusiko Kultur Etxean
 Gaur eta bihar, 19.00etatik 21.00etara. Igandean, 12.00etatik 14.00etara.

● MIKEL SAIZ



TRABUKOAK

Antzinatasuna: XIII. mendea.
 Makina mota: Tiro kurbatuko makina neurobalistikoa.
 Maketaren tamaina: 44x44x46.
 Eskala: 1:40.
 Historia: Trabukoak beso jaurtitzale handi bat zuten; eta honen muturrean, habaila itzel bat. Trabukoarekin, harriak (1.500 kilokoak), haratustela (gotorlekuan gaiozotasunak sortzeko) eta suzko bolak jaurtitzen ziren. Jaurtiketa egiteko soldaduek indar handia egin behar zuten, trabukoak ezin ziren hiru edo lau aldiz baino gehiago erabili egun batean. Jaurtiketaren indarra horren handia zen, ezen beso jaurtitzalearen kontrapisuak beste kontrapisu bat behar baitzuten. Bestela, makinaren egitura bera hondatzen ahal zen.



Periodikoa leituz ilustratzen gara

Kioskoaz. Bazkalondan Monte Carlon musean aritzen garenon artean tabernara heltzen lehena izaten ohi naiz. Samuel agurtu, munduko kuba-librerik hoberena eskuratu —Samuelek eskatu gabe zerbitzatzen dit, hiru jelaz, limoi ur txorrotadaz, La Habana Club zuriaz—, eta barran eseritzen naiz, egunkaria irakurtzera. Egunkaria diot, eta ez egunkari bat. **Julio Martinez Torres** diot, eta ez **Martxelo Otamendirena**, edo **Pablo Muñozena**, edo eta **Mertxe Aizpuruarena**. Garai batean Zapateria kalekoa zena diot, egun Zaragoza etorbideaz haratago, Cordovillan egiten dutena. Horixe baita gurean, Foru Erkidegokoan, egunkaria, a organikoaz, eta hizki larriz: Egunkaria.

Ollarraren kokorikoez. Aspaldi hartu nuen Egunkaria sekula ez erosteko erabakia. Ez dut gogoan zer izan zen ebazpen horren eragilea. **Ollarraren** kokorikoren bat, seguruenik. Baina urteak joan, urteak etorri, jarrera mediatico horri eutsi diot, beste inongo oinarri ideologikori ez bezala. Nolanahi ere, gauza bat da ez erostea eta beste bat, guttiz bestelakoa, ez irakurtzea. Nafarra izanda, Martinez Torresen egunkaria irakurri behar da. Eta nik irakurri irakurtzen dut, egunero, Monte Carlon, musean hasi aurretik, Samuel agurtu eta gero, munduko kuba-librerik hoberena edaten dudana bitartean.

'Zuzendariari' atalaz. Hain zuzen ere, egunkaria irakurtzen aritu nintzen astelehen bazkalondan. Lehenik eta behin, azken asteotako ohiturari ja-



Mertxe Aizpuru, Gara egunkariako zuzendaria.

rraituz, *Zuzendariari* atalera jo nuen, Gazteluko plazako lur azpiko aparkalekuaren aldeko eskutitzen, **Yolanda Barcinaren** aldeko idazkien bila. Auziak uztailen eztanda egin zuenetik, irakurleek ustez Martinez Torresi action-woman erregionalistaren alde bidalitako mota horretako eskutitzak zenbatzen ditut. Emazteak dio zaletasun gero eta zitalagoak ditudala, martxa honetan pederasta bilakatuko naizela, edo koprofago, edo jekide —bere belaunaldiko hainbat emakume iruindar bezala, **Kar-**



Diario de Navarra-ren lokala, Iruñeko Zapateria karrikan.

los Garaikoetxearen zale amorratua da emaztea— Kontuak kontu, astelehenen arestian aipatu eskutitzeko bi argitaratu zituen Egunkariak, 125 eta 126.a.

Bestelakoez. Arestian Egunkaria egunero irakurtzen dudala adierazi dut. Ez da egia, ezta gezurra ere: ez da zehatza. Nafarroari buruzko orrialdeak irakurtzen ditut, besterik ez. Alta, astelehenen mus bikotekidea —Gerardo— eta mus aurkariak —taxistak, Azkona eta bestea— ohi baino beranduago heldu ziren. Eta gauzak horrela, asperralditik ihesi, Nafarroako orrialdeak ez ezik, teletipoz josiriko bestelakoak ere irakurri nituen. Horietan albiste harrigarria,

beldurgarria, eskandalagarria topatu nuen: Estatu Batuetako Etika Batzorde Nagusiak onartu egin du manipulazio genetikoaren bitartez seme-alaben sexua aukeratzea. Hotzikara batek bizkar hezurra astintzearekin batera, *Los Niños del Brasil* —barkatu gaztelerez jartzea, baina hizkuntza horretan ikusi nuen. Euskaraz *Brasilgo haurrak* izanen litzateke. Ingelesez, *Children from Brazil may be?* —pelikula etorri zitzaidan gogora. Zer izanen da hurrengoa, aukeratzea jaioberriaren begi kolorea, altuera, adimena? Hautatzea ez izatea itsusia, baxua, erregionalista? Erregionalista... Akaso manipulazio genetikoak ez dago horren gaizki.



panpilonia zirkus

Ez dut gustuko

San Agustin karrikako Antzerki Eskolaren atarian dago. Tente. Kieto demonio. Asteburuko ordu txikietan, 125 pezeta ahora ematen dizkiot *kit kat* txokolatineraren truke. Gehienetan, jenio bizian eta esku hutsik egiten dut alde. Merezitakoa du ostiakoa.

Erdi-erdian dago. Traba egiten du. Ez du zirrikiturik uzten aurrera egiteko. Denbora luzean, bertan gelditzeko asmoa dauka. Gainera, zalaparta du maite. Iruñeko Udalak aspaldi arautu zuen zarataren neurria. Xabier kalean lanean ari den *entibadorak*, ordea, ez du isunik jaso orain arte.

Folklorearen doinuak ez nau gehiegi erakartzen. Are gutxiago txistuak. Ikastolan, umetan, errekreio garaian zigorturik, txistua jotzera behartzen gintuzten. Nolanahi ere, zigorra, benetakoa gainera, Oli-

veto Kondearen kalea eta Armadako etorbidea lotzen dituen Txistuen plaza.

Erne baina lasai dago. Jauregiko ataria babesten du. Erdara zaintzen iaioa da. Txapel gorriaren indarraren aurrean, atzera egin behar du euskara ahotan harturik sartu nahi duen orok.

Sorreran, ikaragarri toki ederra zen. Berdegune zabalak. Bizilagun gazteak. Etxebizitza erosoak. Tamalez, haurrak eta txakurrak bihurtu dira jaun eta jabe Mendillorri.

Gin-kasa, telefono mugikorra eta *Marlboro* paketea mahai gainean. Inguruan, señoritoak zolazean, ozea. Zorionez, udazkenarekin batera desagertuko dira bidea oztopatzen duten terrazak, batik bat, *esperando... terraza*.

Aspaldi ezagutzen dugu elkar. Hala ere,



Argiñarenak ez ditu gustuko billabesako markesinak.

euria egiten duenean bakarrik izaten dut haren berri. Baiona etorbideko espaloi zabalean, *Marengo* dantzalekuaren parean, harlauza berberak ziprztintzen ditu nire oinetakoak. Plist-plast.

Lehoi berdeak armarratik ihes egin du. Egarriz dagoena asetzeko, zain dago plazaren erdian. Asfaltoaren basamortuan oasia. Gerturatu, aho zabaldu eta tantarik ez. Urik gabeko iturriak hiriburuan nagusi. *Avanti, BP, Cepsa*. Iturrama auzoan, Be-

Pello Argiñarena

losoko aldapan, Zaragozako etorbidean eta, aurki, Mendillorri. Gasolindegia hiritik urrun, nahiago. Inquinasa lantegia, berriz, ez hemen, ez Tolosan, ez inon. Gu desagerrazi aurretik, hura desagertzea nahiago.

Lezkairuko sotoa. Gazteluko plazako usoak. Errepideko termometro gezurtiak. Galiziako etorbideko eta Chinch-

illa kaleko uniformedunak. Armadaren etorbideko Gotorlekuko harresia. Taxien prezioa. *Cuadrado* eta *Cortefieleko* manikien janzkera klasikoa. Autobus geltokia. Frankismoaren oroigarriak. Zine sarrerako ilara luzea. Espetxea. Aterperik ematen ez duten billabesen markesinak. Ez dut gustuko Iruñeko hainbat toki gustuko ez izatea. Ez dut gustuko agur esatea. Ez dut gustuko nire idazteko estiloa, azkenaldian.

Mikel Mnez. de Narvajas

OREKA TALDEKO KIDE ETA MALABARISTA

«Etengabe aldatzen ari da zirkua gaur egun»

OREKA TALDEKO KIDE ETA ZIRKU eskola berriko irakasleetako bat da Mikel Martinez de Narvajas gazte nafarra. Zirkua egun etengabe aldatzen ari dela azpimarratu du Mikelek, eta, beste leku batzuetan ez bezala, zirkua egiteko interesa dutenek hemen eskola eta informazio gutxi dutela gaineratu du.

■ **Zirku berriaz mintzatu da Oreka taldea eskolari buruz hitz egitean; zer erran nahi du horrek?**

Zirkua aldatzen ari dela. Lehen zirkuan animaliak agertzen ziren, aurkezle bat zegoen, biboteduna, kapa eta guzti, eta gizonezko eta emakumezkoak bereizirik agertzen ziren, arraza ezberdinetako jendea bezala. Hori guztia desagertu da. Animaliak ez dira erabiltzen, edo gero eta gutxiago; horren ordez, musika eta antzerkia ageri dira zirkuan, dena nahastu egiten da: malabareak, akrobaziak, dantza... dena.

■ **Nola gertatu da zirkua garapen hori?**

Beno, garapen nolabait logikoa izan da, hau da, garai berrietara egokitu beharra zuen; zirkua lehen oso sinplea zen, gauza bera errepikatzen zen etengabe, eta, pixkanaka, garai berrietara egokitzen joan da.

■ **Garapen horretan, beste agertoki batzuetara ailegatu da zirkua, ezta?**

Hala da; kalean dago zirkua, igerilekuan, antzokietan, edozein lekutan. Zirku teknikak nahastu egin dira eta edozein lekutan ikusi ahal dira gaur egun; edozein lekutan dago malabareak edo akrobaziak egiten dituen norbait. Zirkua, gainera, jada ez da haurrentzako ikuskizuna bakarrik, eta bada haurrentzat ez den zirku ikuskizunik ere. Garapen berria da eta oraindik ez dugu ongi ezagutzen; ikertzen ari gara denok, zer egin eta nola egin aztertzen ari gara, zirkuaren bide berriak nondik joanen diren deskubritzeko. Etengabe aldatzen ari da zirkua egun.

■ **Zirkuaren aldaketa pil-pilean dagoela erran daiteke, orduan?**



● MIKEL SAIZ

Joan den asteartetik, abian da Iruñeko Mira antzokian Oreka taldeak antolatutako zirku eskola. Hogei ikaslerentzako lekuarekin hasi du ibilbidea zentro berriak, zirkuaren inguruko irakasgaiak -malabareak, akrobaziak, dantza, antzerkia eta beste- batera lantzeko asmoz.

Bai, dena aldatzen ari da, asko gainera, eta bat-batean. Gertatzen dena da zirku eskola gutxi dagoela hemen. Frantzia edo Kanada bezalako herrietan egoera oso bestelakoa da, eskola pila dago. Kultura kontua dela uste dut. Hemen ez dago kezka hori. Errusian, adibidez, Gobernuak diru asko gastatu du zirkuan, eta kultura dago, baina hemen hori ez da gertatzen. Errusiako egoera orain ez da ona, baina zirku eskolekin aurrera jarraitzen dute.

■ **Egoera horretan, zirku ikasi nahi dutenek zer aukera dute hemen?**

Hemen gertatzen dena da jendeak gauzak afizioz egiten dituela. Jendeak, adibidez, malabareak gustuko dituelako egiten ditu, baina ez du hori lanbidetzat hartzen. Gainera, malabareak besterik ez dute

egiten, ez dute kontuan hartzen dantza, edo antzerkia, jolasa hutsa da. Ez baitakite nora joan, ez dago libururik, ez dago informaziorik. Hori dela eta, egin beharreko lehenengo gauza pentsaera aldatzea da eta zirkua oso-osorik kontuan hartzea. Gure eskolan, adibidez, malabareak emanen ditugu, eta dantza, antzerkia, akrobazia eta abar, baina dena zirkuarekin lotzen dugu; hau da,

«Gure eskolan malabareak, dantza, antzerkia, akrobazia... lantzen ditugu, dena zirkuarekin lotuta; horiek guztiak zirkuaren erabiltzeko ikasten ditugu»

dantza edo beste edozein gauza zirkuan erabiltzeko ikasten dugu.

■ **Egoera kontuan hartuta, zein da zuen eskolaren helburua?**

Eskolaren helburua, batez

soslaia

Mikel Martinez de Narvajas 25 urteko gaztea diaboloaren eskutik murgildu zen malabareen munduan. Pixkanaka, ikastaroak egin eta gehiago ikasi zuen, irakasle bilakatu arte.

Bartzelona edo Kubara joatekotan egon zen, hango zirku eskoletan ikasteko, baina azkenean Iruñean gelditu eta Oreka taldearen proiektuan erabat murgildu da.

Europako Batasunaren laguntza jaso du Oreka taldearen zirku eskolak. Astean bi egunetan emanen dituzte eskolak, astearte eta ostegunetan, egunero hiru orduz. Malabareak, akrobazia, dantza eta beste ikasteko aukera izanen dute ikasleek.

ere, jendea biltzea da. Bakoi-tzak bere kabuz egin du lan orain arte; baziren batzuk malabareak irakasten, beste batzuk antzerkia edo dantza irakasten, eta guk guztiak bildu nahi ditugu. Lehen urratsa iaz egin genuen, eta denen artean lehen ikastaroa antolatu genuen. Ekimen horretatik sortu da eskolaren egitasmoa, bederatzita hilabeteko ikasturte oso bat abian jartzeko.

→ Edurne Elizondo



● EGUNKARIA



Nafar Kronika

Daniel Urrutia

20.000 lagun

A kaso, denon ahotan dabilen ditxosozko globalizazioak eraginda, talibanak foru lurralderaraino heldu dira, Nafarroaren nazioartekotasuna azpimarratzeko edo. Non eta Cascanten atxilotu zuten bat. Harrigarria. Hauxe izanen zen bi atxilotu malapartatuei egotzi zieten delitua: «Joño! Musulmana da, lurralde kristauan harrapatu dugu, ergo... morroi hau talibanen koadrilakoa izanen da». To foru silogismoa!

Adituek zera erranen dute, ez dela horrenbertzerako. Erriberan aspaldian izan zirela Alaren jarraitzaileak, nafar peto-petoak, banukasi-tarrak. Ez dakit ba, baina Cascanteko atxilotuen errugabetasunean pentsatu beharko dugu, azkenaldian ez baitugu haien berri askorik jaso.

Kontua da horrelako berriekin bestelako al-pisteak estali dituztela, Martxelo Sotes kilikiak erranen lukeen gisara. Nago ez ote dute Dorre Bikien eraso asmatu bertzelako arazo korapilatsuak estaltzeko. Horretarako boterea dute, Nafarroa Garaian bederen. Foru Erkidegoko talibanek, notziaren asmatzaileak, nafar labeleko fundamentalistek, Piepoli ziklistak Urkiolako igoera irabazi zuenean Presoekin Elkartasun Taldeko kide bat Photoshopez argazkitik desagerrarazi bazuten, ez ote zuten gauza bera eginen Dorre Bikiekin?

Eta hori guzia zertarako? Bada, Iruñeko Gazteluko plazako aferaren inguruko erreferenduma estaltzeko!!

«Gaizkak arrazoi du», erran du amak, goizeko kafe goxo zurrupada bat hartuz. Nire amestetik atera naiz. «Erreferendumean Barcina atera da garaile, eta demokrazia parte-hartzaileak galtzaille». 20.000 lagun guti omen dira amarendako eta Gaizka Arangurenendako. Batzuetan ahaztu egiten zaigu, eta halaxe gogorarazi diot amari, Cordovillako egunkariaren eta bere gibelean dagoen guziaren indarra hagitz handia dela. Nafarroa Garaian saltzen diren hamar egunkaritik zazpi *Diario de Navarra*ren aleak dira. Foru informazioaren esparruan beraiek ezartzen dute zer den notizia eta zer ez.

Larunbateko erreferenduma dela eta, Nafarroan gehien saltzen den egunkariak bi orrialde atera behar izan zituen herri kontsultaz (zikin) hitz egiteko. 20.000 lagunek lortu zuten hori.

gure aukerak

MUSIKA

- **Iruñea:** Ambulance pop-rock taldeak Gazteriaren Etxean joko du, gaur, 20:00etan.
- **Zizur Nagusia:** Doctor Robert bikoteak (Javier Ibañez eta Jose Luis Pastor) *Strawberry Beatles forever* ikuskizuna eskainiko dute, gaur, 22:00etan, Kultur Etxean.
- **Burlata:** Negra Loca taldeak Black Rose tabernan joko du, asteartean, 20:30ean.
- **Iruñea:** Kaotiko taldea Txantreako Akelarre tabernan izanen da, asteazkenean, 21:00etan.
- **Ezkaroze:** Mikel Urdangarin kantariak kontzertua eskainiko du, ostegunean, 00:30ean, Ibar-Etxean.

BERTSOLARIAK

- **Urrotz:** Bihar bertso bazkaria eginen dute Sebastian Lizaso eta Jesus Mari Irazurekin.

ANTZERKIA

- **Jaurrieta:** Haurrentzako kale animazioa izanen da, igandean, plazan, 11:00etatik 13:30era.

ZINEMA

- **Itzaltzu:** Euskarazko *Bai, nahi dut* film laburra pantailaratuko dute, gaur, 23:00etan, Anduña ibaia elkartearen.

ERAKUSKETAK

- **Barañain:** Suite Olympic Centenal izeneko erakusketa Antonio Lopez, Txillida eta Tapies artisten lanak ikusten ahal dira. Bertan, Olinpiar mugimenduko hainbat esparru islatu dituzte artistek. Hilaren 26a arte izanen da, Kultur Etxean.
- **Iruñea:** Ines Zudaireren *El hombre, el arte y la naturaleza* margolanen erakusketa Carlos Ciriza galerian izanen da (Kale Berria, 123), hila bukatu arte.

BESTELAKOAK

- **Etxarri-Aranatz:** Bihar eta etzi feriak izanen dira. Larunbata: ganadu erakusketa (15:00); esku-langile erakusketa (16:00); herri krosa (16:00); asto lasterketa (17:00); auzatea (19:30); dantzaldia (20:30 eta 00:30). Igandea: Nafarroako aizkora txapelketako finala (13:00); pilota partidak (18:00); dantzaldia (20:00).
- **Uztaritze:** Orreaga elkarteak Larun mendia igotzeko mar-txa antolatu du iganderako. Irteera: Saratik, 09:30ean. Uztaritzen herri bazkaria,

Lapurtarren Biltzararen kariatara.

- **Kilometroak:** Igandean Beasainen eginen dute Kilometroak bestara joateko autobusa antolatu du Irrintzi euskaltegiak. Goizeko bederatzietan abiatuko da autobusa, Donibaneko Jasokunde plazatik. Txartelak Toki Eder ostatuan eta euskaltegian bertan eskuratzen ahal dira, 1.200 pezeten truke.
- **Lodosa-Sartaguda:** Urriaren 21eko Nafarroa Oinez bestan laguntzeko 2.500 lagun behar dituzte. Prest baldin bazaude, deitu 669-552096 telefonora eta Joxeanez galdetu.

OSKAR MONTERO



Aralarko Inozentzio

Azken berrogeita hamabost urteotan euskaldunoi Aralarko santutegia gorde diguna joan zitzaigun irailaren 22an, 88 urterekin. NAFARKARIAK iragan abuztuaren bukaeran hitz egin zuen Inozentzio Aierberekin, santutegian egin behar zituzten lanak zirela eta. Zera erran zuen orduan: «Apezpiku jaunak esan dit obrak egin behar direla hemen [santutegian], eta nik hau utzi egin beharko dudala, oraingoz behintzat. Gero nik nahi dudana egingo dudala, baina oraingoz utzi egin beharko dudala». Zer egin pentsatzen ari zen oraindik. «Gauzak nola diren ikusi eta orduan erabakiko dut hemen gelditu edo arrebaren etxera bizi-tzera joan». Ordea, Inozentzioren orde, beste Norbaitek hartu zuen erabakia: Inozentzio Aierbe santutegian geldituko da, betiko.